

1936KO GERRA GURE BAILARAN

1 936ko uztailaren 18an piztutako matxino fazisten altxamendua garaile suertatu zen bai Araban eta bai Nafarroan, eta segituan hasi ziren atxiloketak eta afusilaketak. Ikara zen nagusi. Gipuzkoan eta Bizkaian altxamenduak porrot egin zuen. Donostian fazistak gotortu egin ziren Loiolako koartelean, eta kanpora zabaltzeko egindako porrotaren ondoren, bertan zeuden sarturik, azken erasoaren zain. Gure bailarari dagokionez, Nafarroatik hurbiltzen ari zitzaizkigun, eta fazisten aurrerapena oztopatzeko, uztailaren 21ean Endarlatsako zubia txikitu egin zuten. Denbora berean zenbait miliziano-talde Aiako Harrian eta Pikoketa aldean kokatu ziren Endarlatsako koartela eta haren osoa ikustatzeko asmoz.

Etsaia hurbil zegoen, Beorlegi jeneralaren gidaritzapean. Hauen asmoa haxe zen muga ixtea eta Donostiara iristea lehenbailehen koartelean hesiturik zeuden militar fazistei lagundu ahal izateko. Baina Bidasoa-Oiartzun aldean antolatzen ari zen erresistentziaren aurrean, bere asmoak mantsotu eta aldatu behar izan zituen. Beratik aurrera bidea moztua zegoenez, Oiartzungo mendietatik barrena saiatu zen.



Bizkaian eta Gipuzkoan fazisten altxamenduak porrot egin zuen. Milizanoek eta gudariek aurre egin zieten adore haundiz matxinatutakoein



Oiartzun hartu ondoren Beorlegiren asmoa Donostiara lehenbailehen iristekoa zen, baina Erreneriako frontea geldiarazi zuten denbora luzez.

1.- Oiartzungo Frontea

Uztailaren 23an Altzibarko lehenengo baserrietan sartu ziren Beorlegiren agindupeko soldadu erreketek-fazistak. Hurrengo egunean, uztailaren 24an hain zuzen, Ortiz de Zarate-ren tropak Endarlatsa hartu zuen. Gero eta hurbilago zeuden. 26an Aritxulegiko gaina zeharkatutako dute. Fazisten aurrerapenaren aurrean, oiartzuarrek herria hustu beharko dute, eta bertatik alde egin. 27an Oiartzunen sartu ziren eta espainiar bandera udaletxean ipini zuten. Handik aurrera Erreneria alderako bidea zabalik zukaten.

2.- Erreneriako frontea

Oiartzun hartu ondoren Beorlegiren asmoa Donostiara lehenbailehen iristekoa zen, bertako koarteleetan hesiturik zeuden fakziosoie laguntzeko. Hau dela eta Irun eta Bidasoa aldea erasotu gabe utzi zuen, muga ixtearen proiektua gerorako utziz Oiartzun hartu zuten egun berean hasiera eman zioten Erreneriako erasoari. Donostian bitartean koartelak bonbardatu egin zituzten eta egun berean, 27an hain zuzen, amore eman zuten. Beorlegik ezin izango zuen garaiz iritsi, Erreneriako frontean geldiarzirik baitzegoen.

Errenteriako defentsa Perez Garmendia komandantearen eskuetan zegoen, eta Loiolako koartelen errendizioa zela eta, gizon armatu gehiago etorri zitzaion Donostia aldetik, bere lerroak indartzeko.

3.- Irungo frontea

Beorlegik ikusi zuenean Loiolako koartelak errendituak zirela eta bertakoak preso hartuak, muga ixteko asmo zaharrari ekin zion, eta honela uztailaren 28rako oso tropa handia kokatu zuen Bidasoa aldean Irun erasotzeko asmoz. Baina Irun defentsarako pronto zegoen eta Ortega izeneko buru. Santiagomendi, Santa Barbara, San Markos eta Txoritokitako gotorlekuak prest zeuden ere erasotzaile fazistei aurre egiteko. Alde batekoak eta bestekoak prest zeuden azken aginduen zain.



Anarkistek su eman zioten Iruni, fazisten tropak sartu baino lehen.

4.- Ugaldetxeko gatazka

Uztailaren 27an hasiko dira Errenteria alderako erasoetan. Fazisten tropak erreketez, goardia zibilez, karabineroz eta falangistez osatuak zeuden eta lau gudataldetan banaturik zeuden: Beorlegirena (250 gizonekin), Ortiz de Zaratarena (1.200 gizonekin). Los Arscosena (93 erreketeeekin) eta Diaz Duñabeitiarena erreketez eta falangistez osatua. Errenteriako sarreran eman zitzairen harrera beroa izan zen, erresistentzia ikaragarria alegia, eta atzera jo behar izan zuten. 28an erasoaldia errepikatu egin zen eta txiripa batez fazistek preso hartuko dute Errenteriako defentsa bere gain zuen Perez Garmendia komandantea. Egun berean okupatu egin zuten Arkale, irunerako errepidera hurbilduz. Uztailaren 31an fazisten bateriak 120 tiro zuzenduko ditu Errenterira.

5.- Bidasoaldeko gatazka


Abuztuaren 11an erasoak berrindartu ziren, eta Irun hartzeko gatazkari hasiera eman zitzaion. Bidasoaldeko defendatzaileak bi lerrotan kokatzen ziren. Lehenengoak Pikoketa-Erlaitz-Gorostiaga-Pagogaña-Endarlatsa lerroan, eta bigarrenak Elaitza eta

Zubeltzu gainetan eta Puntxasko koartelean, Bidasoa ibaiaren ertzean. Hirugarren defentsalerro bat San Martzialen kokatzen zen, Irundik oso hurbil. Beste aldean, fazis-ten bandoan, gizonen biltzeari ekin zioten, eta Beorlegiren agindupean 3.000 soldadu inguru bildu zirenean, Beorlegik erasoak agindu zuen.

Abuztuaren 11an, goizaldean Pikoketa erasotu zuten. Bertan 16 miliziano zeuden defendatzaile gisa. Bederatzi hil ziren gatazkan eta beste zazpiak afusilaturik izan ziren preso hartuak izan ondoren. Gero Gorostiaga mendixka hartu zuten. 15ean Erlaitz mendiko gotorlekuetik erasotuko dute. Gatazka ikaragarria izango da eta hildakoak ugari bi aldeetatik. Ortiz de Zarate buruzagi fazista hilik suertatuko da bertan. Baina azkenean hartu egingo dute Erlaitz. Pagogañako defendatzaileek ihesari ekingo diote atzetik harrapaturik gelditu baino lehen. Abuztuaren 19an Elaitza eta Zubeltzuko gainez nagusituko dira. Orduz geroztik Behorlegik etengabeki bonbardatu zuen Irungo hiria, eta 30ean bertako biztanleek alde egiteari ekin zioten. Irailaren 2an Puntxasko koartela okupatu zuten, 4an Behobia hartu eta zubia itxi egin zuten, 5ean Irunen sartu ziren Iparraldeko hiribidetik barrena baina hiria sutan zegoen dinamitero anarkistek su eman baitzioten fazisten eskuetan erori baino lehen. Egun berean Guadalupeko presondegitik alde egindako fazistek Hondarribia hartu zuten. Guadaupeko gotorlekua defenditzen duten 200 milizianoek alde egin zuten jaizkibelgo bidetik Lezo eta Errenteria alderantz. Lezorako bideak zabalik zeuden.

6.- 1936ko Santakrutzak Lezon

Irun eta Hondarribia eroriak ziren abuztuaren 5ean, eta zegoeneko tropa fazistak Lezo eta Errenteria aldera zihoazen Donostia hartzeko asmotan. Milizianoak eta guda-riak Jaizkibelen, Gaintxurizketan, eta Irun-Donostia errepide inguruan zeuden gotortu-rik, baina begi bistan zegoen defentsa arras pobrea zela, eta erasotzaileak gero eta ugariagoak, gero eta hobeto "armatuagoak". Lezok ez zuen salbaziorik. Etsaia hurbi-legi zegoen eta boteretsuegia zen. iraila zen, eta Santakrutzak gain-gaineen. Lezo herriaren okupazioari buruz bibliografia handirik ez dago, baina badaukagu narrazio



Irailaren 5ean Irun eta Hondarribia hartu zituzten. Egun berean Hendaiako muga itxiarazi zuten.

zoragarri ederra hau dena kontatzen diguna: Patri Urkizuk "ZOAZTE HEMENDIK" izeneko liburuxka ederrean egiten diguna, eta bertara joko dugu Lezon gertatu zena ikusteko.


"Guk eratuak geneuzkan talde batzuk eta bai Gaintxurizketako kaxkoan, bai Jaizkibelgo punttan, Tiñeku aldean ahaleginak egin genituen egun batzuetan esku bonbekin eta guzti, tiroak ahalik eta gutxienak boteaz, eta genituen munizio eskaxak ondoen aprobatuaz Ikusia zegoen, halere, ez baziren errefuertzua iristen halako egoerak ez zezakeela luzaro iraun. Hamar egun ibili ginen astoekin eta behar genituen jan-edariekin goiti ta beheiti, egun haietan egiten zuen bero zakar sargoritsupean izerditan blai...

Bapatean azaldu ziren Darieta aldean erreketek. Haiek egindako kalteak oraindik herriak gogoan dauzka!


Papelera atzean bazegoen baserri txiki bat Etxetxo izenekoa, eta tiroak estazio aldean hasiak zirenez batetik eta bestetik, ariskua haundia zen. Goiz hartan Darietako nagusia joana zen azientarako inurkinen bila. Handikan zebiltzan erreketek batzuek ikusi zituzten ama eta hiru seme baserritik atera eta beste batera ihesi zihoazela. Joxe, anaia zaharrena, hamazazpi urte zituenarekin, Miren Olamartakoaren baserrira zihoazen, hemengoa baitzuen andregia. Eta kanpora orduko ama eta bi semeak hantxe hil zituzten gurdi bidean, estrata ertzean zerraldo goprutz hilak utzirik. Goardia asaltoko erreketek izan ziren hiltzaileak, eta hiltzearekin aski izan ez zutelarik puinalaz gerritik pasatu zituzten bi semeak. Garai hartan beste asko bezalaxe gerrikoan marfilexko euskal ikurrina omen zeramaten.

Felix zakar biltzaileak ekarri zituen karroan. Hura odol putzua eta sarraskia! Izugarria zen, ia ezin begiratua. Kanposantura berehala eraman zituzten eta han Olatzarreko Joxek lagundu zion lur ematen.

Goizero, Nafarroako aldetik zetozen hegazkinak gure lurretatikan pasatzen ziren pertsona eta abere guztiak izutuz. Gogora datorkit nola lehen bonbak goizeko bederatziak



"Goizero Nafarroako aldetik zetozen hegazkinak gure lurretatikan pasatzen ziren pertsona eta abere guztiak izutuz".



Patri Urkizu da Lezoko okupazioari buruz narrazio eder hau eskaintzen diguna. Oraingoz ez dago beste testurik gertaera historiko honen berri ematen diguna.

inguruan bota zituzten. Bigarrenak, abuztuaren hogeita seian bota zituztenak kaletik bere zaldiarekin eta karroarekin zihoan Felix Iglesias gixajoa, andre bat eta bi neska txiki, bata hamabi urtekoa eta bestea seikoa metrailaren bidean hartu, jo eta xoil zaurituta eritexera eraman behar izan zituzten. Haietako bat berehalaxe egin zizkioten hileta elizkizunak

Eguna argitu orduko hantxe zetozen bere zurrunbilo eta motorren orruz belarriak gortu arte, izua hezurmuinetaraino sartzen zigutelarik. Baina nola bonbardea zezaketen Jainkoaren eta Erlijioaren izenean Gurutze Santuareh herria? Konpreni ezina.

Noski, herri, jende xehea mindu, sutu eta haserretu egin zen bonba eta heriotze haiekin, agintariekin manatutakoa betetzen hasi zelarik. Orden público delakoaren izenean batzuk detenitu zituzten eta kartzelan sartu.

Eta iritsi zen Santakrutz bezpera. Ezin genion egoera hari gehiago eutsi Jaizkibelgo kaxkoan. Iñaxio Pikabeak deitu zion Joxe alpargateroari, hau orduan San Bartolomeko koartelean baitzegoen gudari talde baten buru, gorriak Gurutze Santuko Elizari su emateko prest zeudela eta lehenbailehen etortzeko. Hantxe azaldu zitzaigun laister asko autobus batean herriko plazan. Tito eta Frente Popularreko beste batzuk Udaltxeko balkoian zeuden eta esan zioten:

– Zertara etorri zarte zuek?

– Zuek ixo, goragoko ordenak ditut eta...

Banatu ziren, bada, launa gizon Txerrimuñon, Andreonen, Goiko eta Beheko Plazan. Hurrengo goizan sartu zirenean erreketek herrian zain zuten Euskera Maite baporera igo eta hantxe joan ziren Getari aldera.

Baina igande benetan triste eta tamalgarri hartaz mintza nadin.

Badakizu nola garai hartan meza oso goiz izaten zen. Guretzat ez, noski, ohituta baizkeuden. Meza ondoren mendigozialeak mendira eta arrantzaleak arrantzara joaten ginenez. Seiretarako beheko eliza bete-betea zegoen eta beti bezala atzeko partean gizonak zutik. Don Luisek izugarrizko sermoia bota zuen.

Urteroko ixtorio bera erabil zuen gaitzat Don Luisek, alegia, nola Konstantinori agertu zitzaion ospatzen egun hartan bertan zeruan gurutze haundi bat eta nola zeru-

tik jaisten zen ahots ozen batek esan zion, GUM HOC, SIGNO VINCES, seinale honekin irabaziko duzu eta jendea berotu zuen esanez erreketen bila joan behar zutela kristau onak ziren lezoar guztiek harrera ona ematera, hauek baitzekarkiketen Jaungoikoak adierazitako seinale zerutiarra.

Hantxe joan ziren bera buru, kasuilarik dotoreenarekin, Gure Bordako Klaudio zaldi eder baten gainean, herriko agintari batzuek estandarteak eta Gurutzea zeramatela aurretik, eta mutiko gazte mordoa atzetik.

Christu vincit kantari, eta ¡Viva los requetés de Navarra! ¡Viva Cristo Rey! oihuka Gaintxurizketako kazkoraino. Hemen erreketen kapitainarekin ituna, paktua egin zuten. Frentepopularrekorik herrian ez zela gelditzen aseguratze mutiko taldea han eduki zuten bahituta preso Arriaundiko baserri inguruan. Gero tirorik bota gabe jaitsi ziren. Lehendik nahiko hilik ez balitz bezala batzuei baketsuegia iruditu zitzairen inbasio hura. Zertxobait aurrera hartua zien Don Luisek, eta ikusi zuenean gu oraindik hantxe geundela Bikarioenean eta elizak zaintzen, ze mehatxua botea zeukaten anarkistek su emango ziotela goiko elizari, behekoari eta bikarioaren etxeari, eta gainera kaia ondoko arto baratza barruan gordeak zituzten jada metxak, dinamita kartutxoak, eta dena hankaz gora botatzeko behar zituztenak. Beraz, ez zebiltzan txantxetan. Nioen bezala, han ikusi gintuenean Don Luisek eliza eta bere etxea zaintzen, haserre biziz esan zigun:

– Zoazte, zoazte hemendik“

Patri Urkizuk egindako narrazio eder hau da duarik gabe Lezo herriaren okupazioari buruz egin den datu iturririk zehatzena, bakarra ez bada. Lezo ondoren Erreterria eta Pasaia hartuko dituzte, gero Hernani, Landarbaso,... eta irailaren 13an Donostian sartuko dira. Irailaren bukaera alderako ia Gipuzkoa osoa egongo da Mola fazistaren menpean. handik aurrera gertatu zena soberan eza-gutzen dugu zoritxarrez, eta gaur oraindik ari gara ordaintzen matxinada fazista haren ondorioak. Sugea hil zen baina bere pozoinak bizirik dirau.

JOSEBA ZABARREKO

Erabilitako bibliografia

- PEDRO BARRUSO.- “Verano y revolución. La Guerra Civil en Gipuzkoa” Haranburu argitalatxea (1996)
- PATRI URKIZU.- “Zoazte hemendik! 1936ko Santakrutzak” Susa argitaletxea (1996)